

2015EKO ABENDUAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2015eko abenduaren 29an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenkaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2015EKO ZEMENDIAREN 23AN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2015eko zemendiaren 23ko aparteko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.- 2015EKO ZEMENDIAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2015eko zemendiaren 26ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON ETA 344/2015, 345/2015, 357/2015, 358/2015 ETA 363/2015 ZK. DEKRETUAK BERRONETSI.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

321/2015.- Bainugela bat barrizteko udal lizentzia.

322/2015.- Argi osagarriak iminteko udal lizentzia.

323/2015.- Horma txapel prefabrikatu zuriak mantentzeko beharrak egiteko udal lizentzia.

324/2015.- Goi arkitektoaren zerbitzuaren esleipena.

325/2015.- Sarbide bat egiteko udal lizentzia.

326/2015.- Kredituak aldarazoteko espedientea onestea.

327/2015.- Kredituen judizios kanpoko aintzatespena onesteko ebazpena.

328/2015.- Arriskutsuak izan daitekezan animaliak eukiteko lizentzia.

329/2015.- Bide publikoetatik apeak ataratearren iminitako bermea itzultzea.

330/2015.- Leihoak aldatzeko udal lizentzia.

331/2015.- Lapikoen ekitaldia egiteko udal lizentzia.

332/2015.- Motorshow-a egiteko udal baimena

332bis/2015.- Bainugela barrizteko udal lizentzia.

333/2015.- Nitxoetako gorpuzkinak atarateko legezko epea luzatzea.

334/2015.- Behargin funtzionario batek egindako alde z aurretiko erretiro eskabidea onartzea.

335/2015.- Jubiladuen bazkaria egiteko udal baimena.

336/2015.- Zergadunei itzuli beharreko berrehun eta hogeita hamasei euro eta laurogeita hamabi euroko kopurua onartzea.

337/2015.- “BST BODYBOARD TXAPELKETA” egiteko udal baimena.

338/2015.- Bainugela bat barrizteko udal lizentzia.

339/2015.- Balkoietako sabaiak barriztu eta terrazak iragaizgaizteko udal lizentzia.

340/2015.- Patioko hormak margotu eta harriko goiko aldea baldosaz estaltzeko udal lizentzia.

341/2015.- SUR4 egoitzazko uri lurzoruko plan partzialeko 8. lursail pribatizagarria besterenganatzeko epea zabaltzea.

342/2015.- Ibarratorre biderako egokitze lanen dirulaguntzari uko egitea.

343/2015.- Eraikineko fatxadako testea eta zati arriskutsuak kentzeko udal lizentzia.

344/2015.- 2015-12-14ko agiria sinatu eta onartzea, eta Bakioko Udalak eta Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.k 2012.12.20an sinatutako maileguaren kontratuari erantsi.

345/2015.- 2015-12-14ko agiria sinatu eta onartzea, eta Bakioko Udalak eta Caja Laboral Popular S.Crédito entidade finantzerioak 2012.12.20an sinatutako maileguaren kontratuari erantsi.

346/2015.- Eraikineko fatxadan konponketak egiteko udal lizentzia.

347/2015.- Idi probak antolatzeke baimena.

348/2015.- 2015eko laugarren hiruhilekoaren zarama tasaren errolda onestea.

349/2015.- Suetea eta bainugelak barrizteko udal lizentzia.

350/2015.- Suetea eta bainugelak barrizteko udal lizentzia.

351/2015.- Leihoak aldatzeko udal lizentzia.

352/2015.- Probalekua erabilteko udal baimena.

353/2015.- Kredituak aldarazoteko udal ebazpena.

354/2015.- Bost&Bost antolatzeke udal baimena.

355/2015.- San Silbestreko lasterketea egiteko udal baimena

356/2015.- Kredituak aldarazoteko udal ebazpena.

357/2015.- 2015-12-14ko agiria sinatu eta onartzea, eta Bakioko Udalak eta Caixabank, S.A.k 2012.12.20an sinatutako maileguaren kontratuari erantsi.

358/2015.- Diru-laguntzak eskatzeko epea zabaltzeko ebazpena.

359/2015.- Baserri bat handitzeko udal lizentzia.

360/2015.- Bideo gelea erabilteko udal baimena.

361/2015.- Bakiobaik ekitaldi bat moila puntan egiteko udal baimena.

362/2015.- Bideo gelea alokatzeko udal baimena.

363/2015.- 2015-12-21eko agiria sinatu eta onartzea, eta Bakioko Udalak eta Kutxabank, S.A.k 2012.12.20an sinatutako maileguaren kontratuari erantsi.

Segiduan, Amets Jauregizar alkate andreak adierazo dau dekretu zehatz batzuen ganeko azalpenak emon gura dauzala, hartutako erabagiak daukien garrantzia dala eta. Beraz, azalpen honeek emon dauz:

326. dekretua: Bizkaiko Foru Aldundiak ekonomiaren aldetik egoera larrian dagozan udalei zuzenduta diru-laguntzak emon ebazan, Bakioki jagokonez 548.332,87 euro hain zuzen be. Beraz, 2015eko udal aurrekontuaren aldarazpena egiten da diru kopuru hori bertan zainpetzeko asmoz.

327. dekretua: horren bidez, 2015eko udal aurrekontuaren aldarazpena egiten da. Eta egiten dana honakoa da: aitaturako 548.332,87 euroetatik 100.000 euro bideratu edozein urtetako udal aurrekontuetan zainpetu barik dagozan fakturen zenbatekoak (beren sasoiaren ordaindu ziran arren) zainpetzeko. Eragiketa horri kredituen judizioz kanpoko aintzatespena deitzen jako.

Izan be, bere garaian guztira, gitxi gorabehera, 1.000.000 euro ordainduta egon ziran, zenbateko horri jagokozan fakturak udal aurrekontuetan zainpetu barik egon arren, eta 2011tik aurrera udal aurrekontuetan kopuru horretatik gitxika-gitxika zati batzuk zainpetu egin dira kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren bidez, baina hala eta guztiz be, gaur egun, 300.000,00 euro inguru dagoz zainpetu barik.

341. dekretua: Solozarre-SUR. 4 eremuko Plan Partzialeko 8 zk. lursaila adjudikazio zuzenaren bidez saltzeari buruzko erabagia da. Eta horren dekretuaren nondik norakoa hauxe da:

1.- Solozarre eremuaren zati bat urbanizatuta eta eraikita dago (urbanizazioa fase bitan jaso zan), baina badago beste zati bat urbanizatu barik (3. fasea) eta bertan 8 zk. lursaila dago. Lursail horrek 354.000,00 euroko urbanizazio-zama dauka eta, bertan, 4 etxebizitza egin ahal diran arren, gaur egun, eraiki barik dago.

Udalak 2010ean lursail horren jaubeari lursaila eraikitzeko eta urbanizateko agindua emon eutson, baina udalaren agindeia bete ez eban ezkerro, lursaila desjabetzea erabagi eban udalak, desjabetzeren onuraduna hautatzeko oinarriak onartuz (onuraduna lursailaren jaube egitearen truke prezio justua ordaindu behar eban, eta horretatik 354.928,03 euro urbanizazioaren 3. fasea egitera bideratu) eta horretarako deialdia egin zan arren — BAOn, herriko web orrian eta udal taulan ipini ziran iragarkien bidez — ez zan lizitatzailerik aurkeztu.

Hori ikusirik, beste saio bat egin zan, baina deialdia erakargarriago bihurtzeko 8 zk. lursailean zortzi etxebizitza egiteko aukerea emon zan. Horretarako, desjabetzeren onuraduna hautatzeko oinarriak aldarazo, eta deialdi barria egin zan aurreko moduan, baina hala eta guztiz be, ez zan lizitatzailerik aurkeztu.

2.- Bide horrek emoitzarik emon ez eban ezkerro, hurrengo saioari ekin eutson udalak, hauxe hain zuzen be:

Bakioko Udalak, 2013an, 8. lursailari buruzko nahitaezko desjabetze prozedura izapidetzea erabagi eban, baina desjabetze onuradun barik. Desjabetzeren prezio justua ordaintzeko dirua lortzeko, "L" eremuko udalaren lursail zehatz baten urbanizazio arauak aldarazo beharra egozan. Hau da, "L" eremuko lursail hori jabari publikokoa izanik, arau subsidiarioen aldarazpena tramitatu zan, bertan eraikigarriak izango ziran lursail bi azaltzeko, eta eurok lehiaketa publikoaren bidez saldu eta jasotako diruagaz desjabetzeren prezio justua ordaindu, baina, azkenean, bide hau be bertan behera geratu zan Foru Aldundiak ez eban-eta onartu behin betiko arau subsidiarioen aldarazpena.

3.- Horrezaz aparte eta aurreko saioa oso korapilatsua zala kontuan izanik, udalak premiamenduzko prozedura izapidetzea erabagi eban. Horretarako, aurretiz 8. lursailaren jaubeari hilabeteko borondatezko epea emon jakon 354.928,03 euroko urbanizazio-zama ordaintzeko. Eta ordaindu ez eban ezkerro, premiamenduzko probidentzia jakinarazo jakon, esanez zenbateko hori ordaintzeko beste hilabete bat eukala.

Ordaindu ez ebala ikusirik, Udalak 8 zk. lursaila bahitzeko diligentzia kaleratu eban, eta berau lursailaren jaubeari eta Sabadell Banketxeari (8 zk. lursailak banketxe horren aldeko hipoteka-zama bi daukaz) jakinarazo jaken, eta ez eben helegiterik aurkeztu. Horrez ganera, Gernikako Jaubetza Erregistroan bahiketa diligentzia inskribatu zan.

Ostean, eta 2015.urtean, premiamenduzko prozedura barruan, 8 zk. lursaila saldu ahal izateko bi bider enkantera atera zan, hurrenez hurren; lehenengoan, deialdia BAOn, herriko taulan eta herriko web orrian argitaratu zan arren, lizitatzailerik bat be ez zan aurkeztu, eta bigarrenetan be berdin gertatu zan lizitazio tipoa aurrekoaren erdia izan arren, bai eta

deialdia modu berean egin zan arren be. Ganera, enkantera aterateko hartutako erabagien barri (guztira bi) konkurtsoko administratzaileari eta "Banco de Sabadell SA"ri jakinarazo jaken.

Azkenik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Erregelamenduaren arabera, 8 zk. lursaila adjudikazino zuzenaren bidez saltzeko 2015.10.27ko erabagia hartu zan eta horren barri konkurtsoko administratzaileari eta "Banco de Sabadell SA"ri emon jakenez, azken honek 2015.12.01ean berraztertze helegitea aurkeztu eban, adierazoz, batez be, urbanizazino lursail horrek daukan bahitura-zamaren aldean banketxe horren hipoteka-zama biak lehenesteak dirala.

Hori ikusirik, eta berraztertze helegiteari erantzuna emon behar jakola eta, zuhurtasun arrazoia kontuan hartuz, Alkatetzaren 341. dekretuaren bitartez, adjudikazino zuzenera aurkezteko epea 2016ko martiaren 18ra arte luzatzea erabagi da; izan be, interesatuak adjudikazino zuzenera proposamenak aurkezteko azken eguna 2015.12.10 izan zan eta proposamenen gutun-azalak zabaldu eta adjudikazino egiteko eguna 2015.12.11n ipinita egoan.

342.- Ibarretorre bideko egokitze beharretarako diru-laguntzari uko egitea.

Udal Gobernuak 2015.06.13an eratu eta lasterrera Osasun Sailak diru-laguntzak emoteko deialdia zabaldu ebala jakin ahal izan genduan. Diru-laguntzak oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak hobetzeko bideratutakoak ziran.

Udaleko teknikariekaz berba egin ostean pentsau genduan herriko eskola ingurutik hasi eta Torrea albotik igaro eta kiroldegiraino doan bidea barriztutea. Horrenbestez, obren balorazinoari buruzko txostena prestatu eta Osasun Sailari bialdu jakon. Azken horrek ebazpena zemendiaren 25ean kaleratu eban eta bertan adierazoten da Bakioko Udalarik 3.000 euro inguruko diru-laguntza emotea erabagi dala, obraren aurrekontuaren %10a, bai eta obrea 2015eko abenduaren 15erako eginda egon behar dauala be.

Izan be, epe horretarako obrea amaitzea ezinezkoa zan, eta diru-laguntzari uko egin geuntson, ganera zemendiaren 25a baino lehen Osasun Saileko eta Osakidetzako tekniko batzuen bisita izan genduan eta esan euskuen herri batzuetan osasun sareak osotzen dabiltzala osasun integrala lantzeko eta horrelako proiektuak txertatzeko; beraz, uko egin geuntson diru-laguntzari bagenkialako Osasun Sailagaz eta Osakidetzagaz batera Bakion osasun sarea sortuko zala, eta azken horrek horrelako proiektuak modu integral baten planteatzea ekarrela.

353 eta 356 dekretuak: herriko argiteria arauen aldetik egunean ipintea.

Alkatetzaren zezeilaren 18ko 38/2015 zk. dekreturen bitartez, hauxe erabagi zan: Bakioko Udalaren argiteria publikoaren instalazioen mantenimendua berme guztiaz egiteko, argindarraren zerbitzuen kontratua TECUNI, S.A.. enpresari adjudikatzea.

Kontratua 2015eko martiaren 9an sinatu zan. Baina, kontratua beteten hasi aurretik, herriko argiteriaren instalazioak indarrean dagozan arautegira egokitu beharra egozan.

Hori dala-eta, Tecuni, S.A. enpresek 2015eko apirilaren 21ean aurkeztu eban zeintzuk diran aurrera eroango diran beharrak eta balorazioak, argiztapen publikoaren instalazioen koadroak egokitzeko eta legeriaren arabera moldatzeko; horren ostean, alkatetzaren maiatzaren 22ko 155/2015 dekretu bitartez lan horreek adjudikatu jakozan 76.873,15 euroan (BEZ barruan).

Zehaztu beharra dago koadro horiek aldeztu aurretik ikuskatuak izan zirela enpresaren bitartez; enpresa horrek udaletxean aurkeztu ebazan tentsino baxuko instalazio elektrikoaren arautuko aldizkako egiaztapenaren ziurtagiriak. Tecuni, S.A. enpresak egindako balorazioetan bakarrik jasoten dira ziurtagiri horreetan zehaztutako akatsak.

Tecuni hasi zan adjudikatu jakon baino diru gehiago fakturatu, hau da, 224.485,54 euro arteko fakturak aurkeztu ebazan eta beragaz izandako batzarrean esan jakon 76.873,15 euro baino gehiago ezin ebalu fakturatu eta, beraz, horretatik gorako fakturak atzera bota jakozan, eta Tecunik faktura guztiak erretiratu eta anulatu ebazan.

Bide batez, Bizkaiko Foru Aldundiak kaleratutako ustekabeko gertaerak finantzatzeko diru-laguntzen arautegiaren pean, foru erakunde horri diru-laguntza eskatu jakon. Ondorioz, 110.613,92 euroko dirulaguntza jaso genduan (eskatutakoaren %75a) eta gainontzeko zenbatekoari jagokonez, 2015eko udal aurrekontuaren superabita erabiliz finantzatzea erabagi genduan. Eragite horreek bideratzeko 2015eko udal kontuan bidezko aldarazpenak onartu dira, 353 eta 356. Alkatetzaren dekretuetan agiri diran modura.

Esan dogun lez, diru-laguntza jaso dogun ezkerro eta 2015eko udal aurrekontuan aldarazpenak egin diran ezkerro be, gaur bertan, Tecunik aurkeztutako 224.485,54 euroko beharren kostua onartu dogu eta berorreri jakinarazo deusagu.

Horrenbestez, Tecunik aurkeztu ahal izango dauz egindako beharrei buruzko fakturak.

A) Dekretuen barri emon ostean, dekretu honek berronetsi behar dirala adierazo dau Amets Jauregizar alkatea andreak: 344, 345, 357 eta 363 zk. dekretuak.

Bakioko Udalbatzak, 2015eko abenduaren 7an egindako osoko bilkuran, zenbait zorren ordainketa finantzatzeko asmoz, epe luzerako zorpetze eragiketa hitzartzea onestea erabagi eban, bai eta eragiketa edo mailegua (guztira 5.000.000,00 €) BBVA, Laboral Kutxa, La Caixa eta Kutxabank, S.A. erakundeekaz egitea be

Horrezaz ganera, erabagi horren barruan, maileguaren baldintzak be onartu ziran, eta, horreen artean, eragiketaren finantza interes hauxe: *urteko Euriborra + 4,75% (urtero berrikusiko dana).*

Mailegu kontratuak entidade finantzario horreen eta Bakioko Udalaren artean 2012ko abenduaren 20an sinatu ziran.

Gauzatutako mailegu horreek Bizkaiko Foru Aldundiak eta gorago aitaturako Entidade Finantzarioek (BBVA, Laboral Kutxa, La Caixa eta Kutxabank, S.A.) 2012.10.01ean sinaturako Hitzarmenaren mende egoen.

Oraingoari jagokonez, hauxe: Bizkaiko Foru Aldundiak eta Entidade Finantzario horreek, 2015.12.09an, Hitzarmenaren Addenda baten formalizazinoa adostu dabe.

Hori ikusita, mailegu kontratuak Hitzarmenaren Addendan barneraturako baldintzetara egokitzeko asmoz, Udalak eta BBVA, Laboral Kutxa, La Caixa eta Kutxabank, S.A. entidadeek eranskin-agiriak sinatu dabez. Eranskin horreetan jasoten dan aldarazpena hauxe da: ***2015eko abenduaren 20tik maileguari aplikagarri izango jakon interes tipoaren diferentziala % 1,90arena izango da.***

Erreferentzia tipoaren balioa zero baino txikiagoa izan ezker, kontratu honetan adierazotakoaren arabera, interes epe baxotxean aplikagarri izan behar dan tipo zehatza ezartzeko egin behar diran kalkuluen efektuetara erreferentzia tipoa zero (0,0) dala ulertuko da.

Entitate Hartzekodunek %0,25aren aldaberritze komisioa jasoko dabe eranskin beronen sinadura datan ordaintzeko dagoen Maileguaren kapitalari jagokona (Kuxabank: 1.936.216,47 €, La Caixa: 995.905,76 €, Laboral Kutxa: 494.778,71 € eta BBVA: 494.654,66 €) eranskin beronen sinadura datan ordaindu behar dana.

Horrenbestez, eranskin agiriak dekretu honeen bidez onartu dira: 344 (BBVA), 345 (Laboral Kutxa), 357 (La Caixa) eta 363 (Kutxabank, S.A.).

Maileguaren aldarazpen hitzarmenak sinatzea presazkoa izan da maileguaren interes tipoa (% 4,75 + urteko Euriborra) hilabetero likidatzen dalako, hilearen 20tik kontetan hasita, eta 2015.12.20tik aurrera kopuru horren ordezkari urteko Euriborra + %1,90eko interesa ordaintzeko aukerea dagoala kontuan haruz. Beraz, aldarazpena, udalaren ikuspuntutik, udal ekonomiarentzat onuragarria dala uste dogu. Izan be, interesak dirala-eta udalak 2016an gitxiago ordaindu beharko dau, taula honetan ikusten dan modura:

Préstamo proveedores sindicado 4 entidades, capital vivo afectado por la novación 2016	
3.911.611,27 €	
Cond firma	Condic Novación
5,0708%	1,9767%
198.349,98 €	77.320,27 €
Diferencia 2016	
121.029,71 €	

Dana dala, Entidade Hartzekodun bakotxak %0,25aren aldaberritze komisioa jasoko dau udalaren aldetik, mailegu kontratuaren aldarazpenaren sinadura datan ordaintzeko dagoan maileguaren kapitalari aplikatuz. Komisio horren zenbatekoak honeexek dira:

	0,25 % saldo vivo a la novación		Import por entidad	
Saldo vivo a firma aprox 19 diciembre 2015	1.944.455,92 €	0,25	4.861,14 €	Kutxabank
	995.907,78 €	0,25	2.489,77 €	Caixa
	494.654,66 €	0,25	1.236,64 €	Laboral
	494.654,66 €	0,25	1.236,64 €	Bbva
	3.929.673,02 €	0,25	9.824,18 €	

Hori guztia kontuan izanik, Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez, hauxe erabagi dau: **344/2015, 345/2015, 357/2015 eta 363/2015 dekretuak berroneste.**

B) 358/2015 dekretuaren (herriko kultur eta kirol alkartei dirulaguntzak eskatzeko deialdia) berronespena.

Honen ganean, Amets Jauregizar alkate andreak dino:

Onartzen dot deialdia egiteko orduan berandu gabiltzala; izan be, normala izango zan udalbatzak erabagitea deialdia egitea eta alkarteei eskabideak aurkezteko epe luzeagoa emotea. Baina kultur eta kirol alkarteakaz batzarra abenduaren 15ean egin genduan lez, udal gobernuak ez dau gura izan eurakaz batzartu baino lehen deialdirik egitea, eta, edozelan be, udal ordenantzea bete egin behar dogu.

Azalpen hori emon eta zinegotziek botoa emoteari ekin deutse eta, ondorioz, Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez, hauxe erabagi dau: **358/2015 dekretua berroneste.**

4.- HALA BEHAR BALITZ, ZUBIAURREALDE 34-A HELBIDEAN DAGOAN BASERRIAREN ONDOTIK IGAROTEN DAN BIDE ZATIAREN IZAKERA PUBLIKOAREN GALERARI BURUZKO BEHIN-BETIKO ERABAGIA HARTU; BETI BE HERRI BIDEAREN ZATIA INGURUETAN EZARTZEKO.

Gai hori dala-eta atoan idazkariak berbea hartu eta hauxe adierazo dau:

Bakioko udalbatzeak, 2015eko urriaren 29an izandako bilkuran, honako hauxe erabagi eban: erabilkera publikoko bide baten sailkapen juridikoa aldatzea, beti be Zubiaurrealde auzoko 34-A zenbakian dagoan eraikinaren ondotik igaroten dan zatiari jagokonez; halanda ze, herri jabaritik atara eta ondare ondasun modura kalifikatuko da. Erabagi horrek men egiten deutson bide zatia honako hau da: gitxi gorabehera 119 metroko luzera daukan lur zati bat, mendebaldean Bakioko landa katastroaren 005 poligonoko 131, 130 eta 129. lursailak mugakide daukazana eta ekialdean katastro bereko 132 eta 135. lursailak.

Bide zati horrek (luzerea 119 metro gutxi gorabehera) jabari publikoko izakerea galduko leuke, ondare-ondasun bihurtuz, eta, ostean, lur-zati hori gaur egun pribatua dan beste lur-zati baten ordezkari izateko litzateke, azken hau bide publikoa izan daiten. Trukaketa gauzatu arte, bien bitartean gaur egungo bideak zabalik egon beharko dau. Prozedura pertsona batek egindako eskabide dala-eta izapidetu da.

Horrenbestez, prozedura jendaurrean ezarri zan hilabeteko epean iragarki taulan nahiz Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta herriko web orrian; epe horretan bidezkozat jotzen ziran alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hori guztiori bide alboko lursailen jaubeei jakinarazo jake, bide batez, eragiketa hori islatzen daben planoak bialduz, hau da, gaur egungo bidearen trazadura agiri dan planoak eta proposatzen dan bidearen trazadurearena.

Xabier Goitia jaunak, 2015eko abenduaren 1ean alegazio-idazkia aurkeztu eban ezker, espediente horri buruzko udal idazkariak 2015eko abenduaren 16ko txostena jasoten da. Alegazioak aztertu diran ezker, esan geinkez ez datorrela izapidetu gura dan prozeduraren aurka, hau da, Zubiaurrealde auzoko 34-A zenbakian dagoan eraikinaren ondotik igarotzen dan bide zatia herri jabaritik atara eta ondare ondasun modura kalifikatzeko, eta ostean lur-zati hori gaur egun pribatua dan beste lur-zati baten ordezkari izateko, azken hau bide publikoa izan daiten.

Izan be, Goitia jaunak dinoena da, batetik, udal erabagi horretan bide osoak (Jauregizar baserri ingurutik Bekorrotaraino) herri bidea izakerea daukala aipatzen dala orain arte udalak bidea pribatua dala azaldu dauanean, eta, beraz, aldaketa hori dala-eta herri erabilkerako izakerea aldarrikatzeko oinarrien justifikazioa eskatzen dau.

Hori dala-eta hainbat agiri aztertu doguz eta bidearen ganean datu desbardinak jasoten dira, esaterako eskritura publikoetan, batzuetan ez da agertzen biderik, beste batzuetan zor-bide edo karril modura dator izendatuta eta baten-baten erabilera publiko modura. Planoei

jagokenez, antzinako planoetan ez da bidea agiri, baina 1954ko Landa Kastatroan (lehenengoa egin zana) trukatzea proposatzen dan zatia bide modura agertzen da eta gaur egungo Landa Katastroan bide osoa agiri da erabilkera publiko modura. Horrez ganera, Bakioko herri bideen hiru inbentario dagoz eginda, eurentariko bitan ez da agiri herri bidea dala, margotuta azaldu arren, eta hirugarren inbentarioan herri bide modura azaltzen da. Hori guztiori ikusita udalak herri bidea izateari eutsi deutso, horrela, ganera, bermatu egiten da zabalik egotea.

Horrezaz gain, Goitia jaunak eskatzen dau be herri bide batek eduki behar dauzan azpiegiturak sartzea eta mugaketa egitea eta, azkenik, trukaketaren ondorioz sortutako bide zati barriak erabilkera publikoa izatea.

Amets Jauregizar alkate andreak, EH-Bildu taldearen izenean, dino alegazino-idazkia atzera botateko arrazoirik ez dagoala, alderantziz, eurak ontzat emoten dabela, ze alegazino-gileak alde batetik eskatzen dau justifikatzea zein agiritan azaltzen dan bidea herriarena dala, eta horrerri buruzko agiria dago, herri bidea bada udalak horren mantenimendua bere gain hartzea, eta hori eskatzeari logikoa deritxogu, baina, beti be, mantenimendua udalaren baliabidearen arabera gauzatuko dala kontuan harturik; azkenik, bide osoaren mugaketea eskatzen dau, hori egitea, baina, gatxa da, ze landa bidea dan ezkerro ez dago araututa zelako ezaugarriak izan behar dauzan, beraz, hartzen dogun konpromisoa da herriko urigintza planak bidea aurreikusi beharko leukela eta esan zein ezaugarritakoa izango dan.

Zinegotziek, espedienteen agiri diran dokumentazioaren ganean jakitun diran ezkerro, besteak beste, aitatutako eskabideari, planoei, Xabier Gotiaren alegazino-idazkiari eta udal idazkariaren 2015.08.19 eta 2015.12.16ko txostenei jagokenez; botoa emoteari ekin deutse, eta, ondorioz, EH Bildu eta BakioBaki talde politikoetako aldeko botoagaz (guztira 6 boto), Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Xabier Goitiak aurkeztutako alegazinoak ontzat emotea.

2.- Erabilkera publikoko bide baten sailkapen juridikoa aldatzea, beti be Zubiaurrealde auzoko 34-A zenbakian dagoan eraikinaren ondotik igarotzen dan zatiari jagokenez; halanda ze, herri jabaritik atara eta ondare ondasun modura kalifikatuko da. Erabagi horrek men egiten deutson bide zatia honako hau da: gitxi gorabehera 119 metroko luzera daukan lur zati bat, mendebaldean Bakioko landa katastroaren 005 poligonoko 131, 130 eta 129. lursailak mugakide daukazana eta ekialdean katastro bereko 132 eta 135. lursailak”.

EAJ/PNV udal taldeko bost zinegotziak abstenidu egin dira. Talde horretako Aitor Apraiz zinegotziak adierazotakoagaz bat etorritz: ez gagoz kontra, baina esan genduan erabagi horrek ez eutsola ekarri behar udalari ezelango gasturik, hau da, udal aurrekontuan eraginik ez izatea.

5.- BAKIOKO “URKITZA” IKASTETXEAN ALUMINIOZKO PERTSIANAK IPINTEKO AZALPEN MEMORIA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak dino: *azalpen memoria udal aparejadoreak idatzitakoa da eta udalbatzak onartu beharra dauka memoria horretan azaltzen diran beharrak ez dagozalako udal aurrekontuan jasota (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21.1.ñ artikulua).*

Ganera, aitatu dau 2015eko aurrekontuaren aldarazpena tramitauko dala beharren kostua zainpetzeko eta Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatuko jakola kostu hori finantzatzeko.

Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez, hauxe erabagi dau: **Bakioko “URKITZA” ikastetxean aluminiozko pertsianak ipinteko azalpen memoria onartu, beharren aurrekontua 18.132,23 euro izanik, BEZ barruan dala.**

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO (Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 91. artikulua araberaren arabera).

Amets Jauregizar, EH Bildu taldearen izenean, hauxe adierazo dau: Bakioko kultur eta kirol alkarteak 2015eko diru-laguntzak jaso ahal izateko eskabidea aurkezteko epea atzo bertan amaitu zan eta igaz aurkeztu ziran alkarte berberak aurkeztu dira, beraz, urtea amaitzear dagoala ikusita, diru-laguntzei buruzko erabagia hartzea premiazkoa dala deritxogu.

Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak gai hori premiazkoa dala onartu dau bertaratutako zinegotzien aho batez, hau da, korporazioa lege osotzen daben guztiek.

Segiduan, alkate andreak dino: *bai kultur eta kirol alkarteekaz abenduaren 15ean egin genduan batzarrean, bai Bakio Bizi informazio batzordean, bai eta Koordinazio Batzordean be esan genduan aurten ez deuskula beste aukerarik geratzen diru-laguntzak 2014 banatu ziran moduan banatzea baino. Beraz, proposamena da, diru-laguntzaren zenbatekoei jagoenez, talde bakotzak jasotea 2014ko ekitaldian jaso eban kopuru bardina.*

Bestalde, erantsi dau, gai horri lotuta eta alkarteakaz eta informazio batzordeetan berba egin dan modura, beste proposamen bat dala udalbatzak konpromisoa hartzea datorren urtarrilean lean taldea sortzeko, beti be diru-laguntzen banaketaren gaia berrikusteko asmoz.

Ostean, Udalaren Osoko Bilkurak, zinegotzien aho batez, erabagi hau hartu dau:

a) 2015eko udal aurrekontuaren gastuen orriko 330 481.01.20 partidaren pentzura, ondorengo alkarteei dirulaguntza honeek emotea.

1.- Alaitasuna: 680,9 euro.

2.- Atxurre FST: 680,9 euro.

3.- Bakioko Abesbatza: 1.930,50 euro.

4.- Bakio Kirol Taldea: 9.405 euro.

5.- Bakio Surf Taldea: 680,9 euro.

6.- Bizilore: 680,9 euro.

7.- Gaueka Herri Kirol Taldea: 2.161,50 euro.

8.- Itxas-Alde: 2.475 euro.

9.- Marta Txori: 680,9 euro.

10.- Urkitza Ikastetxeko Guraso Alkartea: 2.623,50 euro.

2.- Konpromisoa hartzea datorren urtarrilean lan taldea sortzeko diru-laguntzen banaketaren gaia berrikusteko asmoz.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

1.- Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ/PNV taldearen izenean, honako hau galdetu dau: *dakigunez Bakio Sport enpreseak, abenduaren 2an, udaletxean eskutitza aurkeztu eban, eta bertan udalari eskatzen deutso kiroldegia kudeatu eta ustiatzeko kontratuaren luzapenari buruz erabagitzeko lehenbailehen, horrela, datorren urteko ekitaldien aurreikuspenak eta egitasmoak prestatzeko astia izateko. Horrenbestez, jakin gura dogu gai hori zelan dagoan.*

Amets Jauregizar alkate andreak EH-Bildu taldearen izenean, dinotso:

Gai horrezaz Bakio Bizi informazino batzordean hainbat bider egin dogu berba, eta adostu genduan mahaia osotzea kiroldegiaren proiektua lantzeko, eta, horrezaz, uste dot hiru batzar egon dirala jadanik, eta eskutitz horren barri be emon da informazino batzar horretan.

Kontratuaren luzapenari buruz erabagiteko epea oraindik indarrean dago, badakigu enpreseak presa daukana luzapenaren ganeko erabagia jasoteko, esaterako, Lanbideri ikastaroen eskabidea egiteko, baina guk pentsaten dogu momentua dala enpresa horrek bete barik daukazan lehentasunak eta guk herri modura daukaguzanak mahai ganean ipinteko beragaz negoziatu aurretik. Ez da gure asmoa kontratua edo kiroldegiaren jarduna arriskuan jartea, baina bai herriaren lehentasuna defendatzea.

Horrez ganera esan behar da orain badakigula Lanbidegaz egitasmo bat negoziatzeko orduan udalaren aurretiazko onespina behar dala.

Dana dala, hor dago BakioBizi Informazino Batzordea eta kiroldegia lantzeko mahaia eta uste dogu EAJ/PNV taldeak galderak eurotan egin beharko leukezela.

Isabel Barturen zinegotziak dino *Bakio Sport UTE* enpreseari erantzuna gaur bertan emon jakola, esanez kontratuaren luzapenari buruz erabagia hartzeko epea oraindik badagoala, kontratua amaitu baino hiru hilabete arinago hartu daitekelako.

Aitor Apraiz zinegotziak dinotso kiroldegia kudeatzen dauan enpreseak udalari eskatu deusola luzapenaren ganeko erabagia aurtengo urtea amaitu baino lehen hartzeko, datorren urteko egitasmoak zehaztu ahal izateko erabagia jakitea premiazkoa jakolako.

Beraz, Aitorrek dino, zentzu horretan, udalaren aldetik ez erantzutea erabagia hartzea dala, eta horrek esan gura daukala udalak kiroldegirako ez daukala planik eta aurrerago ikusiko dala zer egingo dan edo hori aurrera ez badoa kiroldegirako ez dakigun planen bat dagoala. Beraz, heldu gara udalbatzarrera eta urtea egun batzuk barru amaitzen dan arren, ez dakigu enpreseak galdetutakoari erantzun jakon.

Isabel Barturen zinegotziak dino ez dala derrigorrezkoa orain bertan kontratuaren luzapenaren ganeko erabagia hartzea, aurrerago be erabagi daitekelako.

Alkate andreak esan deutso Aitor Apraizeri bihar bertan izango daukala Kiroldegia kudeatzen dauan enpreseari bialdutako erantzuna, eta gonbitea egin deutso informazino batzordean eta kiroldegiaren proiektua lantzeko mahaian parte hartzeko, bertan horrelako galderak egiteko bidea emonaz.

Aitor Apraiz zinegotziak erantzun deutso esanez parte hartzeko ez daukela arazorik, baina urte amaitu baino lehen kontratuaren luzapenari buruz ez erabagitea ondorioak eduki leikezela, 2016. urte barruan erantzuna baiezkoa izatea enpresearentzat berandu izan leitekkelako, bere egitasmoak aurrera atarateko orduan.

Alkate andreak honakoa dinotso: Eusko Jaurlaritzako dekretua da Lanbidek ataraten dauana eta zabala da epeari jagokonez, ez dauka eperik urtearen barruan.

Gai horren ganean, Aitor eta Ikerren eta Amets eta Isabeleren arteko eztabaida izan da.

2.- Josu Garai zinegotziak Aitor Apraiz zinegotziari haxe galdetu deutso: Solozarre-SUR. 4 eremuko Plan Partzialeko 8 zk. lursaila adjudikatzeko izapidetutako prozedurak dirala eta, Ametssek esandakoagaz ia bat datorren.

Aitor Apraizek dinotso gitxi gorabehera baietz, baina, ganera, erantsi deutso “L” eremuko udaleko lursailaren arau subsidiarioen aldarazpenari jagokonez, udalak gehiago sakondu behar leukela, hau da, hor dago aldarazpen hori atzera botaten dauan Bizkaiko Foru Aldundiaren ebazpena; eta, horrerri buruz udalak ahaleginak egin beharko leukez ebazpen horrerri aurre egin eta, beraz, aldarazpena gauzatzeko, ze horrerri esker lursail horretan etxebizitza bi egiteko aukerea sortuko litzateke eta, beraz, udalak diru sarrera lortzeko bidea.

3.- Josu Garai zinegotziak Aitor Apraiz zinegotziari haxe galdetu deutso: 344/2015, 345/2015, 357/2015 eta 363/2015 zk. dekretuen bidez onartzen diran maileguen interesen aldarazpenak (%4,75etik %1,90era) ia EAJ/PNV taldeak onartuko ebazan.

Aitorrek dinotso baietz, ganera, interes horreek aurretiaz Foru Aldundiaren oneritxia izan dabela kontuan hartuz.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 20:10ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria

EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURATIK KANPO.

Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 88.3 eta 228.2 artikuluetan oinarrituz, Amets Jauregizar alkatea andreak, udalbatzaren aretoan dagoan publikoari zuzenduz, adierazo dau ia inork ezer galdetu edo esateko daukan, eta inork be ez dau ezer be aitatu.